

**POLITIKA OROKORRARI BURUZKO EZTABAIDA**
DEBATE DE POLÍTICA GENERAL

2022-09-22-Vitoria-Gasteiz 22-09-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Legebiltzarburu andrea, legebiltzarkideok, sailburuok, herri agintari eta ordezkariok, jaun andreak, egun on!

Atzo, hirugarren urtez, Sempervirens parkean, Covid-19aren pandemiaren ondorioz, Euskadin hildako pertsona guztiak gogoratzeko topaketa bat egin genuen.

Hildako 7.937 pertsonak gogoratu genituen, eta haien senide eta gertukoei dolumina eta hurbiltasuna erakutsi genien.

Ekitaldi horrek berretsi egiten du erakundeek eta euskal gizarteak jasandako sufrimenduaren oroitzapena bizirik mantentzeko dugun borondatea.

Ekitaldi honen bidez, aitortu egiten dugu, halaber, profesional sanitarioen, soziosanitarioen eta funtsezko zerbitzuetako profesionalen lana, bi urte eta erdi hauetan konpromiso- eta profesionaltasun-eredu izan baitira.

Pandemia global baten eraginpean jarraitzen dugu oraindik. Hala ere, Osasunaren Mundu Erakundeko zuzendari nagusiaren hitzak nabarmendu nahi ditut; izan ere, joan den astean baieztatu zuenez, pandemiaren amaiera agerian dago jada.

Arazo berri eta larriak ditugu, baina Covid-aren aurkako borrokan ia hiru urte eman ondoren, etorkizunari beste ikuspegi eta itxaropen batekin begiratu diezaiokegu. Argia jada ez dago tunelaren amaieran, askoz hurbilago dago.

Oroitzapen horrekin, ikuspegi eta itxaropen horrekin hasiko dut nire hitzaldia Politika Orokorrari buruzko eztabaida honetan. Eztabaida hiru zatitan aurkeztuko dut:

-Lehenengoa: hiru krisi global: gizarte-sentikortasun handiko ueña;

-Bigarrena: legegintzaldiaren bigarren zatirako lehentasunak eta neurriak; eta

-Hirugarrena: autogobernu gehiago eta hobe.

LEHEN ZATIA

Legegintzaldi honen erdia igaro berri dugu. Eta, denbora horretan, katean loturik iritsi zaizkigu izaera globaleko hiru krisi, gure bizitzetan arrastoa uzten ari direnak arlo pertsonal, familiar zein komunitarioan. Baita administrazio publikoetan ere.

Nazioartean 2008an lehertutako krisi finantzarioa gainditzea lortua genuen 2019ko abenduan. Eta, handik hilabete gutxira, 2020ko martxoan, pandemia dekretatu zuen Osasunaren Mundu Erakundeak. Legegintzaldi honen barruan jada, urte eta erdiz alarma-egoera eta prebentzio-neurrien artean bizi ostean, atzean utzi genuen osasun-larrialdiko egoera. Eta, handik bi astera baino ez, Errusiak aldebakarreko erasoaldia abiatu zuen Ukrainaren kontra.

Horiek guztiak krisi globalak dira, mundu-mailakoak, eta konponbideek ere halakoxeak behar dute izan: mundu-mailakoak.

Ez Euskadik, ezta beste inongo herrialdek edo estatuk ere ez du gaitasunik bere kabuz bakarrik egoera honen kausak iraultzeko. Argi ikusten ari gara: estatuak txikiegiak dira munta handiko arazoei aurre egiteko, eta handiegiak tokian tokiko arazoak konpontzeko. Horren aurrean, hauxe da gakoa: tokian-tokian jardutea.

Joera global handien eraginpean gaude, eta Eusko Jaurlaritzak gertutik egiten die jarraipena. Hiru esparrutan sailka ditzakegu garrantzitsuenak:

Lehenik eta behin, joera soziodemografikoak:

- Munduko biztanleriak gora egiten jarraitzen du, motelago bada ere.
- Inoiz ez bezala ari da zahartzen biztanleria; egun, 65 urtetik gorako herritarren taldea da gehien hazten ari dena.
- Europan, jaisten ari da lan egiteko adinean dagoen herritarren proportzioa. Horrek tentsioa eragiten du babes sozialeko sistemetan; baita ekonomia-sarean ere.
- 2030ean, hiriguneetan biziko da munduko biztanleen bi heren.
- Populismoa migratzaileen beldurrari etekina ateratzen saiatzen ari da Europan.
- Desberdinkeria-faktoreak hazten ari dira eremu geografiko guztietan.

Bigarrenik, joera ekologikoak eta energetikoak:

- Berotze globala 2 gradu zentigradutik behera mugatzeko erronka du gizateriak. Ez gara, baina, erronka horri erantzuten ari.
- Energia gehiago kontsumitzen dugu, eta karbono-emisioak handiak dira oraindik ere. Baina, hala eta guztiz ere, karbono-neutraltasuna ez da honezkero txakur-ametsa.

- Ukrainako gatazkaren ondorioz, energia-efizientzia eta energia berriztagarrietarako trantsizioa handitzeko beharra areagotzen ari da.
- Energia berriztagarriak hazten ari dira, nahiz eta erregai fosilak oraindik ere nagusi izan.
- Energia-efizientzia da gaur egungo munduko "ezkutuko erregaia".
- Klima-aldaketak kolokan jartzen du munduko ur- eta elikadura-segurtasuna, eta horrek eragina izango du garapen jasangarrian.

Hirugarrenik, joera ekonomiko eta teknologikoak:

- Munduko hazkunde ekonomikoa ziurgabetasunaren mende dago. Zailtasun handiko hamarkada bat igaro ostean, pandemiak handitu du ekonomia-jardunaren gaineko eragina.
- Ekonomia globala multipolarra da dagoeneko, eragile ugari ditu: Txinak funtsezko eginkizuna beteko du; baita, ziur aski, Indiak ere epe luzeagoan.
- Munduko merkataritzak hazten jarraituko du, eta zerbitzuen merkataritza eta datu-fluxuak erabakigarriak izango dira.
- Herrialde guztiak saiatuko dira konektibitatearen buru izaten, nahiz eta arrakala digitalek hor iraun.
- Teknologia lana egiteko modua aldatzen ari da; lanpostuak sortu eta desegingo ditu, eta ekoizpen-modu tradizionalak eraldatuko ditu.

Testuinguru honetan, gomendagarria da multilateralismoa hedatzea eta nazioartean lankidetzaren estu-estuan aritzea. Nazio Batuetan eta Europar Batasunean itunak garatzea funtsezko da egungo egoerari aurre egiteko.

Gerra-gatazkak bizi ditugu lau kontinenteetan. Nork pentsatuko zuen, halakorik, non eta Europan; alabaina, Errusiak Ukraina inbaditu du, herenegun Putinek erreserbisten mobilizazioa iragarri zuen eta hori mehatxu larria da Europako demokrazia liberalentzat.

Beste garai batzuetan ere gertatu izan dira gerrak, aldaketa teknologikoen garaiak eta pandemiak. Alabaina, inoiz ez ziren suertatu hiru prozesuak aldi berean.

Horiek horrela, ondoeza eta nekea metatu zaizkio gizarteari; bada, egoera aintzat hartzen jakin behar dugu, eta erantzun egokia ematen saiatu, badaude-eta suspertuko garela sinesteko zantzuak.

Legegintzaldiaren bide erdia egina dugula izaten ari gara Politika Orokorrari buruzko eztabaida hau. Testuinguru honetan, beraz, azaltzen saiatuko naiz zer egin duen Eusko Jaurlaritzak eta aurrerantzean zer egitea proposatzen dugun.

Begi-bistakoa da zer-nolako “ezinegona, ziurgabetasuna eta segurtasun falta” eragin dituen egoera honek pertsonengan eta familiengan.

Pertsonak dira ardatza, eta halaxe azpimarratu nahi dut. Eztabaidaren muinera datozkigu ostera ere garapena eta erakundeen aldeko konfiantzaren susperraldia. Horretarako, funtsezkoa dugu gure erakundeak indartzea, baita erakundeon eta gizartearen arteko elkarrekintza ere, eta ezinbestekoa dugu gure demokrazia-eredua eta gizarte-bizimodua babestea.

Ikuspegi eraldatzailea eta proiektu partekatua garatzeko erronka dugu. Horrekin baino ezingo dugu burutu aurrean dugun lan eskerga. Eta asko dugu jokoan.

Hona helduta, gobernatzea suertatu zaigun garai honi buruzko ikuskera azaldu nahi nuke:

Uste sendo bat daukat: ezinbestekoa dugu testuinguru politiko, ekonomiko eta soziala behar bezala interpretatzea, gure herriaren etorkizuna berme egokiekkin garatzeko. Ziurgabetasuna jaun eta jabe da nazioartean. Europa erreferente geopolitiko bilakatu da berriro ere.

Desde mi primer día como Lehendakari, he defendido una Europa fuerte, más integrada, con unas políticas propias, tanto internas como externas.

Europa se ha consolidado cuando ha tenido que reaccionar a las grandes crisis. Por encima de los intereses estatales, es el momento de dar un nuevo impulso político y económico para configurar Europa como un actor relevante en este “cambio de época” que estamos viviendo.

Esta refundación de Europa pasa por la definición de un nuevo esquema de relación con los países vecinos para crear una Comunidad Política Europea. Pasa por revisar su gobernanza y establecer con claridad qué decisiones deben adoptarse por unanimidad y cuáles por mayoría cualificada; crear un espacio de defensa común y una estrategia de investigación y desarrollo; ser una región líder en energías renovables y economía circular.

Europa debe seguir siendo el espacio competitivo y de equilibrio social en el que merece la pena vivir e invertir.

En esta línea, pongo en valor las aportaciones realizadas el 9 de marzo de 2018 en el documento de “Visión del futuro de Europa”; y el 24 de mayo mediante el documento “Euskadi ante la Conferencia sobre el futuro de Europa”.

Hemos realizado las aportaciones en siete ámbitos de trabajo:

-Europa social,

-Unión Europea de la Salud,

- Europa competitiva,
- Europa económico-monetaria,
- Europa geopolítica,
- Europa sostenible, y
- Europa política.

Una Europa entendida como unión de los pueblos que la componen, asentada en el principio de subsidiariedad y con una gobernanza multinivel. Una Europa que construya sus consensos desde abajo hacia arriba, otorgando un espacio a los pueblos, naciones, sociedades y gobiernos que conformamos la sociología europea.

La Convención Europea para la reforma de Tratados, defendida la semana pasada por la Presidenta Ursula Von der Leyen, nos ofrece una gran oportunidad. La oportunidad de que las Regiones constitucionales podamos encontrar, por fin, el lugar que merecemos en la nueva gobernanza de la Unión. El lugar que el Gobierno Vasco y todos los socios de la iniciativa RLEG estamos reclamando.

Este ideario europeo cuenta con un amplio respaldo en esta Cámara.

He hablado de incertidumbre y de fragilidad.

Ante esta situación, Euskadi, nuestro País, nuestras instituciones, son la garantía más cercana para responder a las necesidades y superar los retos. Seguimos trabajando para afrontar el futuro sin dejar a nadie atrás.

Estamos plenamente comprometidos con esta prioridad: Programa de Gobierno, Planes estratégicos, Apoyo a las pequeñas y medianas empresas, Impulso a la industria vasca, Berpiztu, Zonas de Actuación Prioritaria, Apoyo al primer sector, Planes de Inversiones Estratégicas, Euskadi Next, Inor atzean utzi gabe, Azken sarea indartzen... Incorporamos a esta planificación las Resoluciones adoptadas en los dos Plenos monográficos celebrados este año.

Euskadi no es ni un oasis, ni una isla; ni económica, ni social, ni política. Pero Euskadi sí proyecta una trayectoria distinta. Una trayectoria propia.

Esta trayectoria se evidencia en la inversión histórica que las instituciones vascas realizamos en la protección de las personas más necesitadas o en la inversión en apoyo a la economía productiva. Un ejemplo es la capacidad de avanzar en el objetivo de que industria y servicios avanzados representen el 40% del Producto Interior Bruto. Otro ejemplo: Euskadi reconocida como Región de alta innovación por el Regional Innovation Scoreboard 2021, superando la media europea.

En este punto, reconozco y agradezco la posición que han mantenido los grupos de esta Cámara. También la actitud del conjunto de las instituciones vascas. Ha habido diferencias, sin duda. Pero ello, no ha impedido mantener abiertos los cauces del diálogo y la colaboración. Hemos alcanzado acuerdos y éstos han dado sus frutos. Esto es lo importante.

Reconozco también la labor de los dos partidos que sustentan al Gobierno de coalición. Gobierno de EAJ-PNV y PSE-EE. Un Gobierno con un Programa, en el que prima la voluntad de cumplir la palabra dada. Un Gobierno que trabaja cada día para sacar adelante el proyecto comprometido con la sociedad vasca. Un Gobierno en contacto permanente con la sociedad, con los agentes económicos, sociales, culturales, educativos o del tercer sector social.

Les aseguro que esta va a seguir siendo nuestra actitud. Vamos a seguir haciendo todo lo posible para propiciar, alcanzar y ensanchar los acuerdos.

La colaboración público-privada es también una seña de identidad en Euskadi. Es justo reconocer el trabajo de empresas, trabajadores y profesionales por adaptarse a la realidad global, la digitalización, la innovación, la transformación industrial y la competitividad.

Los resultados obtenidos son fruto de un ecosistema económico, institucional y social fuerte, competitivo y equitativo. Un ecosistema que debemos seguir construyendo juntos. El ecosistema vasco es nuestra red y es nuestra base para seguir creciendo y generando oportunidades de empleo de calidad, sin dejar a nadie atrás.

La capacidad demostrada de alcanzar acuerdos políticos, institucionales y público-privados ha hecho de este País lo que es hoy. Esta va a seguir siendo nuestra actitud porque es la mejor inversión para afrontar las incertidumbres que tenemos por delante.

ERANTZUKIZUNA HARTU: GOBERNUAREN LEHENTASUNAK:

Finantza-krisiaren aurrean, lehentasuntzat hartu genuen jarduera ekonomikoa eta enplegua berreskuratzea, pertsona zaurgarriei gizarte-babesa bermatzea eta aurrekontuen oreka eta kontu publikoen kaudimena berreskuratzea.

Pandemiaren aurrean, lehentasuntzat hartu genuen eta hartzen dugu osasun publikoa zaintzea eta gure esku dagoen guztia egitea pertsonen bizitza bermatzeko.

Ukrainako krisiaren aurrean, lehentasuntzat hartu dugu demokraziaren eta askatasunaren balioak defendatzea. Lehentasuna izan da, orobat, energiaren eta prezioen krisiari erantzuna ematea. Indarrak batzen saiatu gara kaltetutako pertsonak gurean hartzeko; baita, ahal zen heinean, jarduera ekonomikoari eragindako kalteak apaltzeko ere.

Elkarrizketa eta akordioa lehenetsi ditugu beti, erakunde publiko guztiekin.

Harremanetan izan gara etengabe sektore ekonomiko eta sozial kaltetuenekin.

GURE JARRERA: APALTASUNA, GERTUTASUNA, ENPATIA ETA HITZEMANDAKOA BETETZEA

Egoera ezezagun eta ustekabekoa izan dugu aurrez aurre; mundu-mailako eta aurrekaririk gabeko egoera. Zailtasunak, akatsak eta gabeziak izan dira —eta hala aitortu dugu— hari aurre egiteko orduan.

Horrekin batera, aktibo onak ere baditugu. Hona zein diren:

- 1.- Erakundeen egonkortasuna, auzolanaren eta akordioaren kultura politikoa.**
- 2.- Gardentasuna eta kontuak ematea.**
- 3.- Herri-helburuei erantzutea.**

1.- Egonkortasuna, auzolana eta akordioa.

Legebiltzar honetan, Jaurlaritza sostengatzen duten alderdien eta oposizioaren artean gehiago izan dira akordioak desadostasunak baino. Horixe izango da aurrerantzean ere gure jarrera.

Ahalegin kolektibo horren fruitu, on samarra da enpleguaren egungo egoera. Aurtengo ekainean, 987.000 pertsona ari ziren lanean, Gizarte Segurantzari kotizatzen. Segida historikoan izandako erregistrorik altuena.

Langabezia-tasa % 8,5ekoa izan zen urteko bigarren hiruhilekoan.

Hor ditugu Ukrainako gerra, energiaren prezioak eta inflazio orokorra, baina, hala ere, Euskadiko ekonomiak zortzi hiruhileko darama gora egiten, eta aurtengo aurreikuspenek % 4tik gorakoak izaten jarraitzen dute.

Hazkunde sendo batek enplegu-aukerak dakartza. Beharrezkoa da hori, baina ez da nahikoa. Badakigu etorkizunean lehiakortasunari eta kalitateko enpleguari eusteko beharrezkoa dela, neurri handi batean, industriaren eraldaketaren eta berrikuntzaren alde egitea orain.

Ahalegin kolektibo horren fruitu, 587 milioi eurotik gorakoa izan da aurten ikerketa gehi garapenera bideratutako aurrekontua; alegia, % 10 inguruko hazkundera. Inbertsio hori Barne Produktu Gordina-
ren gaineko % 2,13ra iritsi da; Europako batezbestekoarekiko arrakala murriztu du, eta konbergentziaren helburura hurbildu da.

Ahalegin kolektibo horren fruitu, gure osasunaren sektorea ohiko lan-erritmoa ari da berreskuratzen, bai lehen mailako arretan bai sistemaren gainerako arloetan.

Ez ditugu ezkututzen izandako zailtasunak eta gabeziak. Ezagutzen ditugu, eta ekinean gabiltza horiek arintzeko. Pandemia bat jasan dugu, ezezaguna eta larria; eta Osakidetzak lehen lerroan erantzun dio. Osakidetzak giza baliabide gehiago izango ditu, eta balorazio eta egonkortasun handiagoa emango zaie; osasun-zentro eta ospitale gehiago ere izango ditu, eta ekipamendu, teknologia eta ikerketa-gaitasun hobeak.

Ahalegin kolektibo horren fruitu, joan den apirilaren 7an, “Hezkuntza-hitzarmena” onartu genuen, Legebiltzarreko taldeen artean adostasun zabala lortuta: EAJK, PSEk, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosk sinatu zuten hitzarmen hori, eta zinez eskertzen diegu lankidetzaren bidez aurrera egiteko erakusten ari diren konpromisoa.

Hitzarmen horrek eskola publikoaren papera indartzen du; ekitatea bermatu, eta bikaintasunaren alde egiten du.

Ahalegin kolektibo horren fruitu, gizarte-babeserako sistema finkatu dugu.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskumena hartu dugu. Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren Legearen proiektua onartu dugu, egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren sistema hobetzeko. Ekimen hori irekita dago legebiltzar honetako taldeek parte har dezaten eta elkarrekin akordioa lor dadin.

Eraitza ukigarriak dira, giza garapenean, hazkunde jasangarrian eta gizarte-kohesioan aurrera egiteko ahalegin kolektiboa lehenesten duen eredu baten eraitza ukigarriak.

He comenzado mi intervención recordando la complejidad y dificultad del momento que vivimos, con una combinación de inquietud, inseguridad e incertidumbre.

Este es el marco de nuestras políticas públicas y ha sido el marco de nuestra respuesta, este mismo año, a partir de la invasión unilateral de Rusia en Ucrania, que se inició el 24 de febrero.

Hemos respondido con rapidez y con medidas concretas:

-Fuimos las primeras instituciones en reaccionar para acoger a las personas refugiadas. Desde el primer momento, Gobierno, Diputaciones y Ayuntamientos trabajamos con un primer Plan de acogida que fue aprobado el 10 de marzo, una vez que la Unión Europea aprobara la Directiva comunitaria de acogida.

-El 13 de marzo, en la Conferencia de Presidentes en La Palma, presenté el Plan de acogida de Euskadi. Aporté diez propuestas concretas y aprobamos la “Declaración de La Palma”

- Apoyamos la Declaración de Versalles y los Acuerdos del Consejo Europeo de 24 y 25 de marzo.
 - El 31 de marzo aprobamos el segundo Plan de contingencia que contemplaba una ayuda básica y los recursos para garantizar el acceso de las personas refugiadas a los servicios de salud, vivienda y educación.
 - Desde el día 24 de febrero, hemos estado en contacto con los sectores y empresas directamente afectados. Valoramos la situación en un encuentro con los Clusters en el BEC.
 - El 15 de marzo se presentó en el Consejo de Gobierno un primer programa de “medidas de eficiencia energética y ahorro de costes” gestionadas a través del EVE valoradas en 150 millones de euros.
 - Una semana después, el 22 de marzo, el Gobierno aprobó un paquete urgente para facilitar la financiación a las empresas afectadas, gestionado a través del Instituto Vasco de Finanzas y Elkargi con 10 millones de euros.
 - El 28 de marzo las Diputaciones Forales presentaron medidas y ayudas de carácter fiscal valoradas en 165 millones.
 - El 29 de marzo, aprobamos el Plan de inversiones estratégicas “Euskadi 2024” con 530 millones de recursos extraordinarios para reactivar la economía y acelerar proyectos de inversión.
 - El 8 de abril, en el Pleno monográfico sobre la guerra de Ucrania, presenté un Programa de medidas complementarias articuladas en un Fondo de rescate social y un Fondo de rescate económico con 200 millones de euros extraordinarios. Estas medidas, se aprobaron en el Consejo del 12 de abril.
 - El 28 de julio, Gobierno y Diputaciones Forales acordamos la deflactación del 4% y una ayuda directa de 200 euros a las personas y familias más necesitadas. Estas medidas han supuesto un alivio fiscal adicional de 250 millones de euros.
 - Hemos realizado nuestra aportación para elevar hasta el 50% las subvenciones de los bonos de transporte público aprobadas por el Gobierno español.
 - A primeros de agosto presentamos el primer Plan de contingencia energética de Euskadi.
 - El 31 de agosto se aprobó y remitió al Gobierno español este Plan, tras recibir las aportaciones de las instituciones y agentes económicos y sociales. El documento recoge 50 medidas para mejorar la eficiencia energética y propone al Gobierno español ampliar las ayudas a la industria más afectada.
- Erakundeekin, Cluster-ekin edo hirugarren sektorearekin batera erantzuteko ahalmena erakutsi dugu, baita baliabideak erabiltzeko bizkortasuna ere.

Egonkortasuna, auzolana eta akordioaren kultura ditugun aktiboak dira.

2.- Gardentasuna eta kontuak ematea.

lazko Politika Orokorrari buruzko eztabaidan, 20 konpromiso aurkeztu nituen. Eta konpromiso horien betetze-maila azaltzea da gardentasuneko eta kontuak emateko modurik onena:

1. Apirilaren 1ean, justizia errestauratiboa sustatzeko 2025 Estrategia aurkeztu genuen.
2. Martxoaren 3an, Berdintasunerako Legearen aldaketa onartu zen. Ekainaren 15ean, berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabe bizitzeko Herri-ituna aurkeztu zen.
3. lazko irailaren 21ean, Udaberri 2024 – Bizikidetz, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Plana onartu zen.
4. Urtarrilaren 14an, Ertzaintzan eta Udaltzaingoa sartzeko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren hirugarren promozio bateraturako deialdia egin zen: 494 plaza guztira.
5. Urriaren 7an, Ekarpenen Legea onartu zen.
6. Otsailaren 16an, “Enpresa Txiki eta Ertaintzako 2022rako Laguntza Plana” aurkeztu zen.
7. Ekainaren 27an kultura- eta sormen-industrien berrikuntza-funtsaren dirulaguntzen programa onartu genuen. Udazkenean, Euskararen Agenda Estrategikoa onartu genuen, eta, apirilaren 29an, GAITU aurkeztu genuen: Hizkuntza-teknologiaren ekintza-plana.
8. Euskadiko 30 erakundek baino gehiagok adierazi dute Adimen Artifizialaren Zentroan sartzeko interesa.
9. Abenduaren 28an, Euskadik Frantzia izango duen ordezkartza sortzeko Dekretua onartu zen. Parisen du egoitza berria. Apirilaren 25ean, bulego berria ireki zen Japonian.
10. Eusko Jaurlaritzak Glasgowko COP 26an parte hartu zuen, eta dokumentu bat onartu genuen, goi-bilera hartan hartutako erabakiak geure egiteko.
11. Urtarrilaren 5ean, Osakidetzaren 2021eko ekitaldiko enplegu publikoaren eskaintza onartu genuen, eta, maiatzaren 30ean, 20/2021eko Legearen egonkortzekoa.
12. Apirilaren 26an, “Euskal Hezkuntza-sistemaren eraldaketa digitalerako Plan Estrategikoa” onartu genuen.
13. Guztira, 5.300 ikaslek egin dute ikas-ekinezko prestakuntza duala 3.180 enpresatan.

14. Maiatzaren 18an, demografiaren erronkari buruzko osoko bilkura monografikoa egin zen, eta 74 ebazpen adostu ziren. Ekainaren 21ean, Euskal Estrategia onartu genuen: seme-alaba bakoitzeko hilean 200 euroko zuzeneko laguntzak jasotzen ditu estrategia horrek.

15. Maiatzaren 10ean, [Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen Proiektua](#) onartu genuen.

16. Azaroaren 11n, Lanbide Hobetzen Plana onartu genuen; abenduan, berriz, Lanbideren Bulego Birtual berria aurkeztu zen.

17. Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak eskuratzeko baldintzak malgutu ditugu.

18. Apirilean, Hirigune Programa onartu genuen, hiriko merkataritzaren dinamizazioa eta lehiakortasuna hobetzeko. Euskadiko Turismo-jasangarritasuneko Lurralde-plana onartu dugu.

19. Otsailaren 11n, estrategia soziosanitarioaren zainketa-eredu berriaren oinarriak aurkeztu genituen; eta

20. Uztailaren 26an, Osasun Publikoaren Legearen proiektua onartu genuen. Dagoeneko talde guztiek dute eskura, ekarpenak jaso eta adostasunean aurrera egin dezagun.

Horra hor, bada, legebiltzar honetan orain dela urtebete hartutako 20 konpromiso espezifiko. Bete ditugun 20 konpromiso.

Irekian jasota daude Gobernu Programako 150 konpromisoei, 650etik gorako ekimenei eta 3.200 ekintzen garapenari buruzko erreferentzia guztiak.

Egonkortasuna. Kontuak ematea.

3.- Herri-helburuei erantzutea.

Gure programaren eta Giza Garapen Jasangarriaren ereduaren barruan egituratutako konpromiso horiei esker, aurrera egiten ari gara herri-helburuak betetzeko bidean.

Hauxe da 10 helburuen betetze-maila: zazpi egoki ari dira garatzen, eta hiru apalago.

Garapen egokia dutenak:

-Langabezia % 10 baino txikiagoa izatea.

-Barne Produktu Gordina-ren % 40 gainditzea industrian eta zerbitzu aurreratuetan.

-Euskadi genero-berdintasunaren indizerik handiena duten Europako 6 herrialdeen artean kokatzea.

-Eskola uztearen tasa % 7tik beherakoa izatea, eta euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea;

- Berotegi-efektuko gasen emisioak % 30 gutxitzea.
- Ikerketa gehi Garapenean konbergentzia lortzea Europako batezbestekoarekin; eta
- Euskadi desberdintasun sozial txikiena duten Europako herrialdeen artean kokatzea.

Hiru herri-helburutan apalago:

- Bizi-itxaropena 85 urtera arte luzatzea, pandemiaren bi urte eta erdiek bistako eragina izan dute;
- Jaiotza-tasak % 10 handitzea; eta
- Energia Berriztagarrien kuota azken kontsumoaren % 20 izan dadin lortzea.

Aurrerago jo behar dugu “kalitateko bizi-itxaropenaren” helburuan, eta, hain zuzen, horri erantzuteko hitzartu da foru-aldundiekin estrategia soziosanitario berria.

Jaiotza-tasa handitu behar dugu, eta, hain zuzen, horri erantzuteko garatu dugu Erronka Demografikoaren Estrategia eta lehentasuntzat hartu gazteen emantzipatzeko beharrei erantzutea.

Trantsizio energetikoa bizkortu behar dugu. Horri erantzuteko onartu dugu kontingentzia-plan berria. Euskadin, oso energia berriztagarri gutxi sortzen da; alabaina, Europa jasaten ari den alerta energetiko honek premiaz bultzatzen gaitu energia berriztagarriak oparago sortzeko azpiegiturak areagotzera. Lehentasunezko eta premia handiko helburua dugu hori; hala, ekimen garrantzitsuak eta eraginkorrak adosteko eskatzen digu horrek Legebiltzarreko taldeoi.

Lanean eta indarrak batzen jarraituko dugu Herri-helburu horietan aurrera egiteko, Giza Garapen Jasangarriaren Ereduaren bidez.

Etorkizun hurbilari helduko diot ondoren, bigarren zatian.

LEGEGINTZALDIAREN BIGARREN ZATIRAKO LEHENTASUNAK ETA NEURRIAK: GOBERNUA EKINEAN

Hiru krisi globalek —elkarren segidan eta ustekabeen gertatu baitira— datozen urteetarako lehentasun eta konpromisoei heldu behar diegun esparrua osatzen dute.

Testuinguru horretan, autogobernurako borondate sendoa duen herri batentzat, funtsezkoa da estrategia propioa izatea, ondo zehaztua, egituratua eta eguneratua; errealitate globala etengabe interpretatuz, tokiko jokaleku-eremurik onena ezartzen asmatzeko.

Una Estrategia, cinco prioridades y 40 medidas.

La “Estrategia propia de Euskadi” responde a un diagnóstico y un programa de acción compartido. El Programa del Gobierno forma parte del compromiso con unos Retos y Objetivos de País que nos apelan y competen a todas las instituciones, empresas, agentes económicos y sociales, así como al conjunto de la sociedad vasca.

Tal y como afirma el sociólogo Javier Elzo, “Euskadi siempre ha demostrado capacidad de hacerse a sí misma”. El tiempo que vivimos, la respuesta a “los desafíos del momento actual”, nos conduce a volver a demostrarlo.

La agenda de prioridades para Euskadi viene determinada por la necesidad de presentar respuestas eficientes que agrupo en cinco ámbitos de actuación:

-Uno: cohesión social. Es el corazón de nuestro País, el que procura condiciones de vida dignas para toda la ciudadanía.

-Dos: empleo, industria y crecimiento sostenible. Es el motor de nuestro País; adapta y moderniza la economía y la Administración, contribuye a generar empleo y a mejorar su calidad.

-Tres: respuesta al cambio climático. Es la piel de nuestro País; impulsa el ahorro energético, la economía circular, la descarbonización y el tránsito a las energías renovables.

-Cuatro: reto demográfico y juventud. Es la mente de nuestro País; sitúa en el centro de las políticas públicas la formación y emancipación de las personas jóvenes.

-Cinco: Euskadi-Basque Country. Es el alma de nuestro Pueblo; nos conecta, presenta y representa en el ámbito internacional; promueve la creación y difusión cultural.

Presento, a continuación, 40 medidas concretas que pondremos en marcha este curso.

EN PRIMER LUGAR, MEDIDAS EN EL ÁMBITO DE LA COHESIÓN SOCIAL.

Hablamos del compromiso con las personas y las familias como eje, especialmente con quienes se encuentran en situación de mayor vulnerabilidad.

Hablamos de la mejora permanente en la prestación de los servicios públicos.

1. Plan Vasco de Inclusión Social 2025.

Contempla medidas anticíclicas con atención especial a la perspectiva de género.

2. Plan de igualdad y despliegue del Pacto social para la igualdad.

Puesta en marcha del VIII Plan de Igualdad y Acuerdo interinstitucional, que promueve Emakunde, para la mejora de la atención a mujeres víctimas, en línea con el Pacto social para la igualdad y vidas libres de violencia.

3. Pacto social por la Vivienda 2026.

Acuerdo de colaboración entre agentes sociales y económicos, públicos y privados, para establecer objetivos y líneas de actuación, incluyendo su evaluación, en un horizonte de quince años. Este Pacto se aprobará este mismo ejercicio.

Paralelamente, se presentará este año el Plan Estratégico de Vivienda y Regeneración Urbana.

4. Nuevo Plan de Salud 2029.

El objetivo es caminar hacia una Euskadi más saludable y mejorar, también en calidad, la esperanza de vida de las personas.

5. Refuerzo de la Atención Primaria.

La actualización de la Estrategia de Atención Primaria, vigente desde 2019, se desarrolla con la participación de 40 profesionales de las diferentes Organizaciones Sanitarias Integradas.

Esta actualización contendrá:

- Plan de inversiones específico para la Atención primaria;
- Consolidación de 358 plazas de medicina familiar y personal sanitario; y
- Nuevos servicios, exploraciones y pruebas diagnósticas complementarias.

6. Cartera de Servicios de Osakidetza.

Mapa actualizado de los servicios de cada Hospital en las diferentes Organizaciones Sanitarias Integradas. El objetivo es:

- Definir y homogeneizar la actual Cartera de servicios,
- Establecer las unidades de referencia para la gestión, y
- Ordenar las plantillas por servicio y Hospital para dar respuesta a la nueva Cartera.

El Plan de mejora de las listas de espera en cirugía, pruebas complementarias y consultas externas, dará respuesta a la necesidad urgente de recuperar la actividad ordinaria y las ratios de listas de espera anteriores a la pandemia.

7. Nueva estrategia de salud mental.

Desarrollará modelos de abordaje de las realidades emergentes, especialmente en aquellos colectivos más vulnerables como población infantil y juvenil o las personas de mayor edad.

Primer ámbito, por lo tanto, cohesión social.

SEGUNDO ÁMBITO: MEDIDAS PARA EL EMPLEO, LA INDUSTRIA, EL PRIMER SECTOR, LA INVERSIÓN PÚBLICA Y EL CRECIMIENTO SOSTENIBLE.

Mejorar la competitividad a través de la innovación es uno de los motores para generar oportunidades de empleo de calidad. También favorecer, en la medida de lo posible, un pacto de rentas a nivel de Estado.

Adelanto la próxima convocatoria del Foro socio-económico que pusimos en marcha con motivo de la pandemia y que deseo mantener como espacio de información, diálogo y reflexión; espacio de diagnóstico y acción compartida ante la situación en la que nos encontramos.

Medidas:

8. Sistema Vasco de Empleo. Renovación de Lanbide.

Está enfocado a:

- Mejorar la inserción laboral;
- Adecuar de forma más eficaz los programas de formación a las necesidades empresariales;
- Ofrecer acompañamiento personalizado a las personas con mayores dificultades por ser paradas de larga duración y/o beneficiarias de la renta de garantía de ingresos; y
- Facilitar la inserción social a través del empleo, evitando la cronificación de las situaciones de marginación.

9. Reestructuración del Instituto Vasco de Finanzas.

Se reconfigura como el instrumento de la política financiera y de crédito público de las entidades del sector público de Euskadi, a través de la gestión y coordinación del conjunto de instrumentos y fondos de financiación y participación pública en los sectores económicos vascos.

El nuevo modelo de ordenación de la política financiera del Gobierno Vasco que vamos a aprobar este año, se enfoca a racionalizar y coordinar los instrumentos financieros y a favorecer el desarrollo de proyectos empresariales estratégicos.

10. Plan Estratégico de Turismo y Comercio 2030.

Sus líneas de actuación son:

- Reactivación y regeneración del comercio y la hostelería tras la crisis de la pandemia;
- Medidas que proyecten el comercio minorista hacia el futuro, en línea con las políticas europeas y en clave de sostenibilidad medioambiental y recuperación del comercio local;
- Impulsar la digitalización del comercio minorista; y
- Promoción del turismo de Euskadi en los mercados preferentes, con protagonismo específico para el senderismo, las vías verdes, la enogastronomía o el turismo industrial.

11. Plan de Gestión de Inspección de Trabajo.

El Plan va a especificar las campañas inspectoras incluyendo recursos personales y tecnológicos; actuando con programas para mejorar la transparencia y la participación de los agentes sociales.

12. Nuevo Clúster financiero.

Aglutinará a empresas, organizaciones y entidades públicas y privadas con el fin de potenciar el ecosistema financiero e inversor de Euskadi y facilitar el emprendimiento, el desarrollo y el arraigo empresarial.

El Clúster concitará la participación de los diferentes fondos públicos de financiación empresarial, sociedades de capital riesgo, entidades de previsión social, fundaciones bancarias, fondos privados de inversión, family offices y sociedades de garantía recíproca que operan en Euskadi, en orden a promover la competitividad empresarial.

13. Estrategia del dato y Basque Quantum Ecosystem.

Impulso al ecosistema cuántico de Euskadi:

- Investigación: desarrollando el programa IKUR Quantum conectando la comunidad vasca investigadora y la internacional;
- Innovación: constituyendo el Quantum Innovation District del sur de Europa; y
- Educación y formación: Quantum Academy para la generación de talento.

14. Apoyo a las pequeñas y medianas empresas.

Los programas de apoyo contarán con 630 millones de euros. Se reforzarán las medidas para favorecer la competitividad de la industria en internacionalización; innovación tecnológica y no tecnológica; inversión y arraigo empresarial.

Trabajaremos para lograr que 500 empresas realicen proyectos de innovación a través de:

- Observatorio de despliegue de la red de banda ancha ultrarrápida;
- Oferta de servicios Data Center; y
- Desarrollo de 80 proyectos digitales a través del Basque Digital Innovation Hub.

15. Ciberzaintza.

Agencia vasca de ciberseguridad que coordinará los recursos y capacidades existentes en el sector público y el privado.

Estrategia para lograr que Euskadi sea un “hub de ciberseguridad industrial” en colaboración con otras regiones europeas.

16. Memorándum de colaboración con Airbus.

Desarrollo de las áreas de actuación establecidas en investigación, talento, industrialización y fortalecimiento de la red de proveedores vascos.

17. Red de alta velocidad.

Definidos los proyectos de acceso a las capitales y firmados los protocolos de integración ferroviaria en Bilbao y Vitoria-Gasteiz, ejecutaremos la obra civil que nos corresponde mediante encomienda de gestión.

Además, este otoño vamos a firmar el Convenio con la Diputación Foral de Bizkaia para poner en marcha la Línea 5 de Metro Bilbao.

18. Plan de gestión integral del conocimiento en la Administración pública.

Impulso al Gobierno digital para mejorar la cualificación de los recursos humanos, modernizar y simplificar los procesos para responder de forma más ágil y personal a la ciudadanía.

19. Estabilizar y ampliar la plantilla de Osakidetza.

Respuesta al compromiso de mejora de las condiciones laborales:

- Segunda fase de las pruebas de selección para cubrir las 3.535 plazas de la OPE 2018-2019;
- Convocatoria de 3.723 plazas de la OPE de estabilización de la Ley 20/2021;
- OPE de reposición 2020 con 1.002 plazas; OPE de reposición 2021 con 1.273 plazas y OPE de reposición 2022, cuyas plazas están aún por determinar;
- Expediente de ampliación de plantilla estructural de Osakidetza en 3.000 nuevas plazas. El objetivo de todas estas iniciativas es reducir la temporalidad del 40% a menos del 7%; y
